



FUNTZIONAMENDU ARAUAK

Ospitalizazioko Unitatea- TRAUMATOLOGIA

MEDIKUAREN BISITA / FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA

- Eskatu laguntza behar duzun guztietan, logelako txirrina erabiliz.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Bainua daukazu gelan, zeure burua garbitzeko.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lur gabeak.

EBAKUNTZA EGIN BEHAR IZANEZ GERO, JAKIN BEHARREKOA



- Sendagile hauek egingo dizute ebakuntza: _____
- Interbentzioaren ondoren: traumatologoak informazioa emango dizu 3. solairuko operazio-geletako sarreran. D aldea.
- Interbentzioa urgentea bada: 1. solairuko operazio-gelako sarreran emango da informazioa. D aldea.
- Anestesia ondoko bizkorketa 2. solairuan egingo da (ABU). D aldea.

MEDIKUAREN IKUSTALDIA



- Egunero, igande eta jaiegunetan izan ezik, 09:00etatik 12:00ak arte, gutxi gorabehera.
- Ordutegi honetan paziente bakoitzeko soilik lagun bat egon daiteke.
- Bisitan zehar medikuak zure egoeraren berri emango du.

FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIO MEDIKOA

- Egunero: Medikuen bisita bukatzen denean.

OTORDUAK (ordutegi gutxi gorabehera)



9:15ean Gosaria
13:15ean Bazkaria
17:00etan Merienda
20:15ean Afaria

BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara.
- **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.**
Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke

BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Ospitalean sartu izanaren **egiaztagiria** behe solairuko harreran emango dizute (datu gehiago behar baduzu, jar zaitetz harremanetan pazientearen ardura duen medikuarekin).



TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke.



KAFETEGIA **Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.**

Kafetegia erdisotoan dago.

Solairu batzuetan kafe eta freskagarri makinak daude, igogailuak dauden hallean, hain zuzen



ALTA hartzeko egunean, gela arratseko 15:00ak baino lehen utzi beharko duzu.

Ospitalean ISILTASUNA beharrezkoa dela gogorazten da.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txosten-medikoa jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.

Laguntza erlijiosa eta espiritual:



Ospitaleak zerbitzu erlijioso katolikoa du Kapean (1. solairuan). Harrera erlijiosoaren ordutegia: egunero 8:30etik 20:30era. Mezen ordutegia: Igande eta jaiegunetan 11:00etan.

Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaiokete euren arimako maisuari.